

Espetxe politika «gizatiartzea» eskatu du Etxerategen

Osasun egoerak ziurgabetasuna eta kezka areagotu du euskal preso senideengan; beraien etxeetatik gertuen dauden espetxeetara lekualdatu ditzatela eskatzen jarraitzen dute // 4

Etxebizitza tasatuak egingo dituzte Leaburu-Txaraman

Martxoan onartu zuen Leaburu-Txaramako Udalak 451.429 euroko aurrekontua 2021erako; elizaren atzeko lursailean aurreikusi dute etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektua // 5

Saralegik eta Regillagak Europako Txapelketa dute jomugan

Zazpigarren postua lortu berri dute Europako Kopako proban; Judo Club Tolosako kideen asmoa uztaileko aurreikusita dagoen Europako Txapelketarako sailkatzea da // 7



Unai Sarasola eta Unai Regillaga judokak, Espainiako Txapelketan. ATARIA



Juan Karlos Izagirre eta Gurutze Etxezabal EH Bilduko ordezkariak, Tolosako osasun zentroaren kanpoaldean, atzo. I.T.

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduari babesa adierazi dio EH Bilduk

Alkateen Mugimendutik kanpo geratzen dena «herritarrei bizkar emanda» ari dela kudeatzen esan du koalizioak; Osasun sailari Tolosaldeko eskariak aintzat har ditzan eskatu dio // 3

«Burgesiak ezkutuko diktadura ezartzeko duen gaitasuna da alderik larriena»

**IXIAR MALKORRA
ETA MIKEL ELORDI
TOLOSAKO GKS**

Eskualdean ezarritako kontrolak salatu ditu Gazte Koordinadora Sozialistak // 6



**DASTATU
UZTA BERRIA**

OSTIRALA, LARUNBATA
ETA IGANDEA
EGUERDIETAN

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

TOLOSATIK AUTOBUSA

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA) TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM

Aurtengo maiatzaren 1eko larre irekiera ere, bertan behera

Enirio-Aralar Mankomunitateak 2021erako aurrekontua onartu du eta webgune berria estreinatu; pandemiaren ondorioz ez dute Larre Irekiera Festarik egingo

Erredakzioa

Enirio-Aralar Mankomunitateak aurtengorako abiatutako proiektuen eta aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen berri eman du. Esan du «historikoki» Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntzen bitartez finantzatu ahal izan dituela inbertsioak Enirio-Aralarren, «%100ean». «Iazko murrizketen ondorioz, GFAK 2011tik indarrean zegoen hitzarmenaren bitartez lortzen zen finantzabide hori aldatu eta aurreantzean inbertsioak Goilarre programaren bitartez kofinanziazio bidez burutuko direla erabaki ostean, udalek inbertsio-erako ekarpenak egitea erabaki dute abeltzaintza azpiegiturak

hobetzeko 200.000 euroko inbertsio plana mantendu ahal izateko», azaldu dute mankomunitateko arduradunek. Aurrekontuaren inguruan esan dute Mankomunitatearen Zuzendaritza Batzarrak onartu zuela aurrekontua (308.672,28 euro) eta berari lotutako inbertsioen hasierako proposamena (200.000 euro). «Aurrekontu hauen ezagutze nagusia da udalek ekarpena hirukoiztu dugula. Horrela, lehenengo aldiz, inbertsioen zati bat udalek finantzatu dute 57.142,86 euroko ekarpenarekin ordainduko da», azaldu dute. «Erabaki hori hartzeko unean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2020ko murrizketen barruan proposatutako kofinanziazio

eredu berria orekatzea eta Enirio-Aralarreko abeltzaintza azpiegiturretan inbertsioak bermatzeko helburua izan dugu», zehaztu dute. Esan dute, era berean, 200.000 euroko inbertsioak egiteko aukera zabaltzen duela udalek egindako ekarpenak, «GFAK dagokion zatia jartzan badu». Besteak beste, 40tik 18 txaboletan aurreikusten ditu hobekuntza lanak.

Aurrekontuaren eta inbertsioen inguruko azalpenak ematearekin batera, webgunea berri dutela azaldu du mankomunitateak, eta aurtengoa ere, «tamalez», COVID-19a dela eta, maiatzak 1eko Larraizko Larre Irekieraren Festa ospatzerik ez dela izango gaineratu dute.

Gernikako Arbola lorategietako lanen inguruko bilerak

Bizilagunek apirilaren 12an jasoko dituzte obren inguruko azalpenak eta merkatariak bi egun beranduago

Erredakzioa Tolosa

Datozen hilabeteetan hasiko dituzte Tolosako Gernikako Arbola lorategietako ingurua txukuntzeko obrak eta lanekin hasi aurretik informazio bilerak egingo ditu Tolosako Udalak, Laskoain kaleko eta Euskal Herria plazako lanekin egin duen moduan.

Lanen inguruko azalpenak emateko bilera bana egingo dute eremu horretan bizi diren bizilagun eta merkatariekin. Zehazki apirilaren 12an bilduko dira bizilagunekin eta hilaren 14ean merkatariekin.

Apirilaren 12an 19:00etan egingo dute bilera udaletxeko batzar aretoan eta merkatarien bilera hilaren 14an 13:30ean izango da, leku berean.

Proiektuaren nondik norakoak azaltzeko udal ordezkariak, teknikariak eta obra gauzatzeaz arduratuko den enpresako ordezkariak gerturatuko dira. Epeak zehaztuko dituzte eta herritarrek izan ditzaketan zalantzak argituko dituzte. Bileretan parte hartzeko aurrez izena ematea beharrezkoa dela gogoratu du Tolosako Udalak.

AURREZ EMAN BEHAR DA IZENA

Bileran parte hartu nahi duten merkatariak agoitia@tolosa.eus helbidera idatzi edo 943 69 75 21 telefono zenbakira deitu behar dute, 10:00etatik 13:00etara, eta bihar da azken eguna.

Bizilagunek bihar dute izena emateko azken eguna ere, baina Udate Herritarren Arreta Zerbitzura idatzi edo deitu behar dute: udate@tolosa.eus helbidera, edo 010 edota 943 65 44 66 telefono zenbakietara, gaur deituz gero 07:15etik 19:00etara egin dezakete, eta bihar eginez gero 07:15etik 14:15era.

Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea jarri du udalak

AMEZKETA // Amezketako Udalak 2021. urteari dagokion ibilgailuen zergaren ordainketa hilaren 9tik maiatzaren 31ra bitartean egin beharko dela adierazi du. Kobraketa helbideratuta dutenei zerga apirilaren 9an kobratuko zaie eta ez dutenak Kutxabanketik pasa daitezke ordainketa egitera.



Musika eskolaren atzealdean jarri dute bizikletak uzteko tokia. ATARIA

28 bizikleta uzteko aparkaleku estali berria jarri dute

TOLOSA // Bizikletak aparkatzeko eremu berri bat jarri du udalak musika eskolaren atzealdean. 28 bizikletentzat lekua du eta estalita dago. Mugikortasun jasangarriko egindako *Tolosa Badabil* planean jasotako lan leerroetako bat da bizikletaren erabilera sustatu eta bizikletentzako aparkaleku gehiago sortzea.

'Non dago Mikel?' dokumentala, igandean

ANOETA // Askotariko ekitaldiek osatzen dute apirilako Anoetako egitaraua. Lehen ekimena igandean izango da: *Non dago Mikel?* dokumentala eskainiko dute Mikelasagastin, 18:00etan. Bestalde, apirilean zehar sendabelarikastaroa, *Death cafe* edo doluaz eta heriotzaz hitz egiteko gunea eta ipuin-kontakteta izango dira.

Hilberriak eta urteurrenak



Joakina Zubillaga Agirrezabala

Zurea zena zurekin doa edonora

Herriko zure ilobak:
Agirrezabala - Zabala
Gorostegi - Agirrezabala

BEDAION, 2021eko apirilaren 8an

hilberriak • eskertzak • urteurrenak

ATARIAn jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan **DOAN**

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110€ • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Juan Karlos Izagirre Gipuzkoako EH Bilduren bozeramailea eta Gurutze Etxezabal Tolosaldeko EH Bilduren arduraduna. I.T.

«Adostasunik gabe ezin da kalitatezko osasun publikorik bermatu»

EH Bilduk Tolosaldeko Alkateen Mugimenduari babesa adierazi dio, eta Osasun sailari «arduraz jokatzeko» eta eskualdeko eskariak aintzat har ditzala eskatu dio

Iñigo Terradillos Gaztañaga

EH Bilduk esan du erabat babes-ten duela Tolosaldeko Alkateen Mugimendua, eta ekimenaren helburuekin bat datorrela. «Eskualdean osasungintza publikoaren arloan dagoen hutsunea betetzeko helburua ezarri dio mugimenduak bere buruari, eta bertan, aktiboki ari dira parte

hartzen gure alkateak», esan du Gurutze Etxezabal EH Bilduren Tolosaldeko arduradunak.

Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, Tolosako anbulatorioan egin duten agerraldian, Etxezabalek beharrezkotzat jo du osasungintzaren eredu zehaztu eta adostasunik lortzea: «Tolosaldearen beharrak zeintzuk diren aztertu eta balizko ospitale

horren egitura zehaztu behar da. Era berean, Asuncion ospitaleko langileekin zer gertatuko den jakiteko, adostasunik bilatu behar harko dira langileen ordezkari-ekin eta komitearekin. Eta gauza bera egin behar da ospitalearen kokalekuarekin ere».

Horretarako, «erronkaren neurriko partaidetza prozesua» ezinbestekoa dela esan du, eta

ildo horretan, eskualde mailan parte hartzeko ireki den aukerari uko egitea ez duela ulertzen gehitu du: «Mugimendu horretatik kanpo geratzen dena herrita-

«Alkaten Mugimendutik kanpo ari dena, herritarrei bizkar emanda ari da kudeatzen»

GURUTZE ETXEZABAL EH BILDU

rrei bizkar emanda ari da kudeatzen, eta adostasunik gabe, ez da posible izango eskualdeak behar duen kalitatezko osasun arreta publiko, integral eta euskalduna bermatzea».

GABEZIAK AGERIAN

Bestalde, Juan Karlos Izagirre EH Bilduren Gipuzkoako bozeramaileak esan du COVID-19ak «mahai gainean» utzi dituela «sistemak dituen gabeziak», eta erakunde betebeharrak dela desorekei aurre egitea: «Erakunde publikoetako ordezkari-ekin desberdintasunei aurre egin, eta herritar guztiei kalitatezko osasun zerbitzua bermatu behar diete».

Hala, gogoratu du Tolosaldea dela ospitale publikorik gabeko eskualde bakarra: «Horren aurrean, ziurtasun osoz diogu osasungintza publikoa dela kalitatezko zerbitzua berma dezakeen bakarra. Desorekak eta osasungintzaren pribatizazioak kezkatu egiten gaituzte».

Izagirreraren arabera, «pozgarria» da alkateen mugimenduak egindako proposamena, eta ados daudela esan du, «eskualdeko herritarrei hitza eta erabakia emateko planteamenduetarekin». Osasun zerbitzuen kudeaketaren eskumena duten erakundeei «arduraz jokatzeko» dagokiela adierazi dio, eta Osasun sailari eskatu dio eskualdeko eskariak aintzat har ditzan.

31

POSITIBO BERRI

Osasun sailak emandako datuen arabera, 9.247 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik 731 (%7,9) positiboak izan ziren. Tartean, Tolosaldean 31 atzeman zituzten: Tolosan 12, Ibarran 7, Hernialden 4, Alegian eta Asteasun bina eta Bidania-Goiatzen, Lizartzan, Amasa-Villabona eta Zizurkilen bana. Amasa-Villabonan 185eko tasa dute, eta Tolosan 618koa.

Dementzia Bizitzen programa lantzen jarraitu nahi dute

Erredakzioa

Buru Bihotzez elkarteak Dementzia Bizitzen programa garatzen jarraitu nahi du eta horretarako herritarren laguntza eskatu du. Bide horretan etxeetan dauden pezetak programara bideratzeko eskatu du, izan ere Espainiako Bankuak ekainaren 30era zabaldu du pezetak euroengatik trukatzeko aukera. Pezetak Tolosako Kopibat, Shuyana, Eko Tolosa Frutategia, Berezi, La Huerta, Soronea eta Goikoetxea estankotan; Alegiako Maritxu janari dendan; Ibarrako Coviran eta To Pa Ti dendetan; eta Villabonako Masturinean harategian utzi daitezke.

Era berean, Dementzia Bizitzen programaren barruan hila- ren 15ean Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolan tailer bat eskainiko dute, 18:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko www.burubihotzez.eus helbidera jo behar da edo 688 76 09 27ra deitu.

Hilberriak eta urteurrenak



Joakina Zubillaga Agirrezabala

(Juan Inazio Agirrezabalaren alarguna)

- Goian Bego -

*Belarmugako amona
baserriko dama
sutondoan hainbeste
paxintxi emana
jakin beti gurekin*

*egongo zerana.
Aitona zain daukazu
zoaz beregana
eta denon partetik
jaso muxu bana!*

Bilobak: Xabier eta Nerea, Eider eta Roki, Mikel eta Saioa, Jon Ander eta Larraitz, Ane eta Xabi, Aitziber eta Aratz, Miriam, Aitor, Axi eta Nagore, Joseba eta Mireia, Garazi, Eñaut, Ekhi, Uxue, Arantz, Egoi, Ugaitz eta Xuban; Birlobak: Enaitz, Irati, June, Liher, Itoitz, Haizea, Izar, Amets.

BEDAION, 2021eko apirilaren 8an



Joakina Zubillaga Agirrezabala

(Juan Inazio Agirrezabalaren alarguna)

Apirilaren 5ean hil zen, 92 urte zituela.

Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -

Haren animaren zuzendaria: Joxi Eguzkitza; seme-alabak: Bartolo eta Justi, Maria eta Jose(f), Ramon eta Arantxa, Antton eta Ines, Juani eta Goiko, Agus eta Joxe Mari, Josune eta Karlos, Mila eta Rafa, Martin eta Amagoia, Marta eta Josu, Jose Mari eta Agurtzane, Idoia eta Xaka; laguntzailea: Lurdes Zubillaga; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, birlobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

BEDAION, 2021eko apirilaren 8an



Patricia Velez, Joseba Egues, Mila Goikoetxea, Jon Ijurko eta Kristina Iruretagoiena, .I.S.A.

Urte ezegonkorra igarotzen ari dira presoen senideak; neurriak aldatuz doaz espetxeetan ere, besteak beste, bisitenak, eta egoerara egokitu behar izan dute

Ziurgabetasuna nagusi

Irati Saizar Artola

Ziurgabetasuna eta kezka dira euskal presoen senideek gehien errepikatu dituzten hitzak. Urtebete pasa da pandemiak guztia geldiarazi zuenetik, eta «urte nahasia» izan da bai presoentzat, eta baita kanpoan haien zain dauden senideentzat ere. «Urtea daramagu bisean bisekorik gabe», dio Joseba Eguesek, Anabel Egues presoaren anaiak. «Guk urriaz geroztik ez dugu bisean bisekorik izan, eta otsailean bisitarik ere ez», kontatu du Mila Goikoetxeak, Gari Etxeberria presoaren amak. «Guk bisitak izateko muga pasa behar dugunez, PCR probak egitea exijitzen digute», esan du Kristina Iruretagoienak, Luis Iruretagoiena *Suñi*-ren arrebak.

«Kezka sortzen digu haiek nola egongo diren pentsatzeak, egoera ezohikoa da», dio Goikoetxeak. Kontua luze doala eta kezu dira senideak. Pandemia hasierako lehen asteak «bereziki gogorak» izan zirela gogoratu du Jon Ijurko Etxerat elkarteko eskualdeko kideak: «Bi edota lau hilabete ere pasa zituzten presoek bisitarik gabe, eta ordutik jendea beldurrez ateratzen da errepidera».

Espetxeak itxi, ondoren bisitak erregulatu, bisean bisekoak kendu, eta berriro noiz ikusi ahalko duten jakiteko bermerik gabe pasa dute urtea senideek. «Luze egiten ari da», dio nekaturta Goikoetxeak. Bisean bisekoak urrian kendu zizkietenetik, ordea, bisiten denbora bikoiztu diete: «Lehen 40 minutukoak izaten genituen, eta orain bikoiztzak». Hala ere, salatu du aldiko

bi pertsonak bisitatu ahal dutela, lehen lau baimentzen zituztenean. Esperantzarik galdu gabe jarraitzen du Etxeberriaren amak: «Esperantza dugu apirilean hasiko garela bisean bisekoarekin».

Anabel Egues preso elduaindarra lekualdatu berri dute Kordobatik (Andaluzia) Villabonara (Asturias). «Mugitzen dutenean, berrogeialdia pasa behar izaten dute, eta tarte horretan bisitarik ez digute eman, eta egun batzuk berarekin hitz egiteko aukerarik gabe ere pasa ditugu», esan du Eguesek. Gainerakoan, urte honetan zehar deiak ez zaizkie aldatu: «Astean, zortzi dei izaten ditugu hamar minutukoak, eta hamar minutuak pasatzean deia bera moztzen da, ez dago luzatzeko aukerarik». Hori bai, orain arte, etxekoekin hiru bideo dei egiteko aukera izan du Anabel Eguesek.

Gari Etxeberria lizartzarrak, berriz, astean zortzi minutuko hamabi dei egiteko aukera duela azaldu du Goikoetxeak. «Gainera, iazko bisitak moztu zizkigutenean, bideo deiak astero egiteko aukera eman zien, baina orain, hilabetean behin soilik du bideo bidez dei egiteko aukera». Egoera honetan, garrantzizkotzat jo du Goikoetxeak bideo deia: «Esterako, oso aproposa da haurrak dituzten presoentzat, umeei aita ikus dezaten; hala ere, hilabetean behin, oso labur geratzen da».

Espetxe politikak «gizatiartzea», horixe da Etxeraterkatzen duena, Patricia Velez Etxeraterko bozeramaleak azaldu duenez: «Gizatiartze eskatzen dugunean, zentzu batean, edozein momentutan familiarekin harremana izateko aukera ere izan daiteke. Espetxean zaude,

bai, baina zergatik ezin zara komunikatu familiarekin nahi duzuenean?».

Frantzian, Mont de Marsan espetxean dago Luis Iruretagoiena *Suñi*, eta bestelakoa da hango egoera, arreba azaldu duenez: «Gure kasuan, zelda bakoitzean telefonoak jarri dizkiete, eta inolako mugarik ez dute erabiltzeko; hori bai, ordaindu egin behar izaten dute». Muga pasa behar izate horrek ere, oztupoak besterik ez dizkie ekarri bisitara joaten direnei, izan ere, muga zeharkatu baino 72 ordu lehenago PCR proba egitea exijitzen zaie. «Presoek nahiago dute gu bisitan ez joatea, ikusten baitute bisita motz bat izango dela, eta gainera kostu handia suposatzen duela», dio Kristina Iruretagoienak. Izan ere, 120 euro inguruko kostua du PCR proba bakoitzak. Velezek salatu du «zentsugabekeria» dela 72 ordu lehenago proba eginaraztea, «bitarte horretan kutsatzeko arriskua izanda». Hori horrela, Etxeraterkatu du espetxe atarian egin ditzatela froga azkarrak eta kostuak bere gain har ditzatela.

LEKUALDAKETAK, GUTXIKA

Tolosaldeko euskal presoaren artean, Gari Etxeberria lizartzarra soilik geratzen da lekualdaketa iragartzeko. Ostiralero iragartzen dituzte lekualdatuko dituzten presoaren izenak, eta bere amak esan du zalantza eta ezjakintasun handiarekin ari direla egoera bizitzen. Velezek salatu du, behin gobernuan urrunketarekin amaitzeko erabakia hartuta, zergatik jarraitu behar duten senideek ezjakintasun sentsazioa bizitzen».

Eguesek esan du «antsietatea eta ezinegona» sortzen dizkietela egoerak. «Anabelek deitzen duen bakoitzean horixe galdezen digu: aste honetan ze izen?». Ijurkok gaineratu du «loteria moduko bat» dela albistea jasotzea: «Baina ez da zain egoetea espetxetik noiz aterako diren jakiteko, baizik eta mezua jasota ere, espetxean jarraituko dute, noski, kilometro gutxiagotara, ekonomikoki ere errazagoa da eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ekartzen die senideei».

«Villabonara joatea, fisikoki eta ekonomikoki seguru ez dela Andaluziara joatearen berdina, baina oraindik ere ez da Euskal Herrira, eta hori da Euskal Herriak eskatzen duena», gaineratu du Velezek. Beraien etxeetatik gertuen dauden espetxeetara lekualdatu ditzatela eskatzen jarraitzen dute Etxerat elkartekoek.

Lau etxebizitza tasatu eraikitzeko proiektua prestatzen hasiko dira

Leaburu-Txaramako Udalak martxoko osoko bilkuran onartu zuen 451.429 euroko aurrekontua; inbertsioetarako partidari murrizketak egin behar izan dituzte

Irati Saizar Artola

Leaburu-Txarama

Martxoan egindako osoko bilkuran onartu zuen Leaburu-Txaramako Udalak 2021eko aurrekontua. Aurten, 451.429 euroko poltsa izango dute urtean zehar gastatzeko. Iaztik jaitsiera izan duela esan du Joxe Ramon Eizagirre alkateak, izan ere, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen duten zenbatekoan ere jaitsiera izan dute. «Gurea bezalako udalek egiten dituzten aurrekontuetan foru funtsaren menpekotasuna handia da», dio.

Gastu orokorrak mantentzearen aldeko apustua egin du udalak, eta egin beharreko murrizketak inbertsioen atalean egin dituzte. Eizagirrek esan duenez, herriaren mantenua, gizarte zerbitzuak, kultura eskaintza eta beste hainbat atal bermatu egin nahi izan dituzte.

Inbertsioetarako, orotara, 41.811 euro bideratuko dituzte, baina soberakinaren arabera jokatuko dute, eta urtean zehar kreditu aldaketa batzuk onartuko dituzte hainbat proiektu egin ahal izateko.

INBERTSIO BERRIAK

Etxebizitza proiektu bat du eskuartean Leaburu-Txaramako Udalak: elizaren atzean dagoen lursail batean, etxebizitza tasatuak eraikitzeko proiektua, alegia. Aurten, lan teknikoak egin nahi dituztela azaldu du alkateak, «aurrerago eraiki ahal izateko». Bi eraikin egitea da asmoa, bakoitza bina etxebizitzarekin; guztira, hortaz, lau etxebizitza eraikiko dituzte.

Bere garaian herri inkesta bat egin zuten, eskaririk bazegoen ikusi eta interesa zutenek zein motatako etxeak nahi zituzten jakiteko. Horri tiraka hasi dira marrazten proiektua. Izan ere, etxebizitzak eraikitzeko beste lursail bat ere badu jabetzan udalak; kasu honetan, ordea, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lursaila da eta aurreragorako utzi nahi dute aukera hori: «Inkesta bete zuen jendeak nahiago



luz baina aurrekontu txikiagoarekin egingo diote aurre aurtengo urteari Leaburu-Txaraman. IRATISAIZAR ARTOLA

zuen pisu batean bizi baino etxe inguruan jardun edo lursail txiki bat zuen etxebizitza izatea, hortaz, eskaera hori kontuan hartu dugu eta horregatik erabaki dugu etxebizitza tasatuak egitea».

Horrez gain, larrialdirako etxebizitza bat prestatu dute behar gehien duten herritarrentzat udaletxeko eraikinean. Ia erabiltzeko prest dute gainera. «Altzairu batzuk baino ez dira falta, laster izango da erabiltzeko aukera», azaldu du Eizagirrek. Udaletxeko azken solairuan kokatu dute etxebizitza eta orain igogailu bat jarriko dute, irisgarria izan dadin. Horretarako, kreditu aldaketa bat egingo dute, eta aurten administrazio kontuak eginda, datorren urte hasieran obrarekin hasteko moduan izango direla uste du alkateak. Udaletxearen barrualdetik jarri-

ko dute igogailua, eta lehen solairuan, pleno gelari ertz batean zatia kenduko diote igogailua bertatik pasa ahal izateko.

Larrialdiko etxebizitzari dago-kionean, gizarte zerbitzuetan eskaintzen den zerbitzuaren parte izango da. Sukaldea eta egongela, komun bat eta bi logela ditu, guztira bost oherekin. Alkateak zehaztu du gizarte langilea arduratuko dela etxebizitzaren kudeaketaz.

Udalaren jabetzakoak diren lurren inbentarioekin ere jarraitzeko asmoa dute, eta aurten amaitu nahi dute guztia. Duela bi urte hiri-lurren inbentarioa egin zuten, datorren plenoan onartuko dute hiri-bideen inbentarioa eta aurten hasiko dira landa-lurren inbentarioa egiten. «Horrela, udalaren jabetzakoak diren lurak zeintzuk diren eta zeintzuk ez zehaztuta geratuko

da eta zalantzak errazago argitu ahal izango ditugu».

Beste diru partida bat Ostaturaren mantentzeko bideratzen dute urtero. «Dagoeneko urte batzuk ditu eta mantentzeko lanak egin behar izaten ditugu nahiko maiz». Iaz, esaterako, barrutik margotu zuten, eta aurten, teilatuan konponketa batzuk egingo dituzte. Mantentze lan horiez gain, herri bideak konpontzen ere jarraituko dute, «Aldundiko laguntzen arabera». Duela gutxi, udaletxe atzeko aparkalekuaren alboan dagoen haur parkea berri dute, eta oraindik lekua soberan dagoenez, helduentzako makinak jarriko dituzte kirol mugimenduak egin ahal izateko.

TXARAMARA BEGIRA

Duela pare bat urte, Txarama auzoa biziberritzeko batzorde bat sortu zuten Txaramako auzota-

rrek. Egin zitezkeen hobekuntzak kontuan hartuta, proposamen zerrenda bat aurkeztu zuten udalean, eta horiek kontuan hartuta, plan bat osatu dute auzorako. Iaz zuten aurkezteko auzotarren aurrean, baina pandemiak eragotzi egin die, eta aukera dagoenean aurkeztuko die.

Bien bitartean, gaia lantzen ari dira, eta pixkana ingurua hobetzeko lanak egiten hasi nahi dutela zehaztu du Leaburu-Txaramako alkateak. Auzoari erdi-erditik pasatzen zaio nola errepidea hala erreka, eta hori dela eta, Foru Aldundiarekin eta Gipuzkoako Urak-ekin hitz egin behar dute. «Oso baldintzatuta gaude», dio kezkatuta Joxe Ramon Eizagirrek. Momentuz, paperean plan guztia jasota dute, eta asmoa «gutxika egiten joatea» da.

Apirila, liburuaren hilabetea

J. Artutxa Dorronsoro

Apirilaren 2a Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da; hilaren 23a, berriz, Liburuaren Eguna. Data horien harira, Tolosako Udal Liburutegian liburuaren hilabetea izango da apirila, eta hori ospatzeko, haur eta helduei zuzendutako hainbat jarduera antolatu dituzte.

Alde batetik, Tomi Ungerer ilustratzailearen obra omentzeko, hiru ipuin aukeratu dituzte Tolosako ikastetxeetako maila ezberdinetan lantzeko: Haur Hezkuntzan (lau urtetik gora), *Hiru bidelapurrak*; Lehen Hezkuntzan (6-7 urte), *Lagun berriak*; eta azkenik, hau ere Lehen Hezkuntzan (zortzi urtetik gorakoekin), *Otto ilaunezko hartz baten autobiografia*.

Behin irakurgaiak landuta, ipuinei buruzko marrazkiak egingo dituzte ikasleek, eta muralak osatuko dira horiekin. Ondoren, liburutegiaren webgune-
ra igoko dituzte muralen argaz-

kiak, eta apirilaren 30etik aurrera egongo dira ikusgai herritar guztientzat. Marrazkien egileen artean, gainera, liburuak zozkatuko dituzte. Bestetik, Tomi Ungereren hainbat obra maileguan hartzeko aukera egongo da liburutegian; bere lanaren inguruan sortutako interesgunean egongo dira.

Bestalde, hilabetean zehar gustuko liburuak gomendatzen dituzten haur eta helduen artean ere liburuak zozkatuko dituzte. Hiru modu daude parte hartzeko: Instagram bidez, gomendioarekin story bat sortzea @tolosako-liburutegia etiketatuz, argazkia *liburutegia@tolosa.eus* helbide elektronikora bidaliz, edo gustuko liburuarekin liburutegira hurbilduz eta bertan argazkia eginez. Gomendioaren argazkiak ikusgai egongo dira Tolosako Udal Liburutegiaren Instagram kontuan eta webgunean, eta apirilaren 30ean egingo dute zozketa, parte-hartzaile guztien artean.

Zazpi metro kubiko hondakin bildu dituzte Oria ibaian

J. Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak, Uraren Nazioarteko Egunaren harira eta Tolosako Ingurumen Zentroarekin eta ikastetxeekin elkarlanean, Oria ibaiaren garbiketa gauzatu berri du. Bi goizetan egin dituzte garbiketak, eta guztira Tolosako hiru ikastetxeetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 3. mailetakoko 210 ikasle inguru aritu dira lanean.

Guztira, zazpi metro kubiko hondakin bildu dituzte. Aurreko urteetan, hondakin ugari eta bolumen handikoak jaso zituzten; aurten, berriz, gehienak plastikoa izan dira, eta kopurua txikiagoa izan da. Udal teknikarien ustez, bi arrazoirengatik izan daiteke: «Pandemiagatik etxean denbora asko pasa dugulako, eta

irteerak mugatuak izan direlako». Bestelako hondakinak ere aurkitu dituzte, hala nola, beira, arropa, aterkiak, pneumatikoak, hesi bat, bizikleta bat eta bi patinete. Irisgarriak ziren hiru puntutan egin dituzte garbiketak: Andre Maria elizaren atzean, Sam zubiaren eta Berazubi zubiaren artean eta Usabal kiroldegiaren inguruan. Gunearen araberak, gainera, ateratako hondakin mota ezberdina izan da.

Ikastetxeen inplikazioa eta ikasleen esfortzua nabarmendu dute udaletik. «Balantzea oso positiboa izan da eta tolosar ugari hurbildu da egindako lana eskertzerak». Datozen egunetan beste eragile batzuekin jarraituko dute ibai garbitzen. Urrian, berriz, 100 bat ikasleekin egitea aurreikusten dute.



TOLOSAKO GKS

«Kontrol sozialak ordena kapitalista mantentzeko funtzioa du»

IXIAR MALKORRA ETA MIKEL ELORDI
TOLOSAKO GKS-KO KIDEAK

'Kontrol Soziala ez da Segurtasuna' lelopean, mugikortasun neurrien aurrean eskualdean ezarritako kontrolak salatu nahi izan ditu Tolosako Gazte Koordinadora Sozialistak

J. Artutxa Dorronsoro

Osasun larrialdiaren harira, duela aste batzuetatik Tolosaldean eta Tolosan kontrol polizialetatik etengabe areagotu direla salatu dute Ixiar Malkorra eta Mikel Elordi Tolosako GKS-ko kideek. Batak zein besteak, gazte langileek kontrol neurriak «modu nabarmenean» pairatu dituztela salatu dute.

Zer da azkenaldian aldarrikatzen duzuen?

Ixiar Malkorra: Birusaren hedapena gelditzeko aitzakiapean, kontrol sozialaren areagotze nabarmena egon da. Ezarritako neurriek klase izaera garbia dute; langilearen pobrezia orokortuak ekar ditzakeen erantzunak prebenitzeko mekanismoa da kontrol soziala eta zuzeneko lotura du askatasun politikoen ezabapenarekin; eskualdean ere pairatu dugu: poliziaren presentzia izugarria, kontrolak, miaketak eta identifikazioak, komunikabideetan sortutako iruditegi desitxuratu eta interesatua, biltzeko eskubidearen ezabapena... Itogarria izaten ari da.

Bada kontrolak ezartzea baino lehen handiagorik?

Mikel Elordi: Noski. Hasieratik, ardua eta erabaki indibidualen jarri da fokua, eta birusaren hedapena sektore proletarioen jokabideak gaitzetsiz justifikatu dute gainera, bereziki gazte langileonak. Ezarritako kontrol mekanismoak ontzat emateak dakarrena da gaixotasunaren hedapena langile sektorean askatasun zibil eta politikoen kontura geldiarazteko apustua onartzea; hori da, hain zuzen, alderdi politiko guztien onspenarekin egin dena. Osasun larrialdi bati modu eraginkorren aurre egiteko aukera bakarra osasun izaera duten neurri planifikatu eta orokortuak hartzea da, eta ez dugu halakorik ikusi azken urte osoan.

Zein da zuen ustez, kontrol horien ondorio larriena?

I. M.: Burgesiaren ezkutuko dikadura bat ezartzeko eta ordena soziala nahieran berregituratzeko duen gaitasuna da kontrol hau erakusten ari zaigun aspektu larriena. Kontraktasunik ia ez da agertu hartu diren neurrien aurrean. Agintariaren pandemia kon-

trolpean mantentzeko eta hiritarren osasuna eta ongizatea bermatzeko ezintasuna erakutsi dute, eta bien bitartean, geroz eta askatasun gutxiagoko bizi ereduak inposatzen dizkigute.

**Zein alternatiba proposatzen duzue osasun egoerak okerre-
ra egiten duenerako?**

M.E.: Osasun neurri errealak hartzea da alternatiba eta ez burgesiaren irabaziak mantentzerako begirako neurri ekonomikoen ezarpena. Batetik, prebentzioa erraztu ahal izateko baliabideen sozializazioa. Bestetik, gaixotasunari aurre egiteko baliabideak areagotzea. Kontakua mugatzeko baliabideak jartzea funtsezkoa da, baina gaixotasun baten hedapenak hau eraginkortasunez tratatzeko baliabideak eta azpiegitura indartzea ere eskatzen du. Kontrol sozialak ordena kapitalista mantentzeko funtzioa betetzen du.

I.M.: Badirudi gaur egun osasuna soilik Koronabirusa izatearen edo ez izatearen arabera neuritzen dela, eta askoz harago doan kontua da. Garai jakin bakoitzeko gaitasun teknikoaren eta ezagutzaren baitan aztertu eta baloratu behar da. Klase izaera nabarmena du osasun egoerak; egoera ezberdinak aurkitzen ditugu, klase sozialaren arabera. Gizarte kapitalistan langilegoaren zat eskaintzen den bizi eredu pobrezian eta miserian oinarritzen da, eta maila horretakoa da eskaintzen den osasun zerbitzua ere.

Irailtik otsailera bitartean errepedean izandako kontrolak grafiko batean bildu dituzue, kopuruekin.

M.E.: Urtarrileko eta otsaileko datuak aurrekoen bikoitzak dira, gutxienez. Horrek argi erakusten du osasun zerbitzuak indartu ordez, egoerak okerre-
ra egiten duenean, kontrol soziala areagotzen dutela. Gainera, mugikortasunerako askatasuna modu arbitrarioan ezabatu da, osasun beharrei erantzun gabe; Gabonak ditugu horren adibide. Nahieran darabilte legea eta erabateko ziurgabetasuna eta nahasmena lortzen dute.

Bestetik, Tolosan gune ezberdinak grabatzen dituzten 43 kamera daudela ere salatu duzue. Zein da arazoa?

I. M.: Azken hamarkadan, teknologiaren garapena izugarria izan da. Langileak, hala ere, ez du horren inongo onurarik jasotzen. Nahi edo ez, gure egunerokotasuna grabatua dago, eta informazio horrekiko ez dugu inongo kontrolrik, saihestezina da babesgabe sentitzea.

Aurrera begira baloratuko dugun puntua



Aulkitik

Maria Martija

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Larunbata egun berezia zen. Urduritasuna nabari zen gure artean bai partidarengatik, bai eta Kopako finalarengatik ere.

16:30ean genuen Atletico Revelinen kontrako partida eta beti bezala 15:00etan geratu ginen partida aurreko kafea hartzeko.

Lehenengo zatiari ekin genion eta hasi bezain pronto markagailuan aurretik jarri ziren, baina guk aurrera jarraitu eta minutu gutxira Eiderren golari esker berdinketa lortu genuen.

Gol gehiagoren beharra genuen eta lehenengo zatia amaitu baino lehen Intzaren gola iritsi zen, maila honetan bere lehenengo gola. Askoren lehena! Atsedenaldira 2-lekoarekin joan ginen.

Bigarren zatia lehenengo zatiaren nahiko antzekoa izan zen, aukera gehiago izan genituen baino ez genuen aukera horiek aprobetxatzen jakin. Nahiz eta partida guztian zehar baloiaren jabetza izan, azkeneko minutuetan beraien gola iritsi zen. Beraz, partida berdinketarekin amaitu zen.

Hemendik aurrerako partida guztiak oso garrantzitsuak dira eta ahalik eta puntu gehien lortzea garrantzitsua da. Beraz, larunbatean nahiz eta hiru puntuak merezi, lortutako puntua oso garrantzitsua da eta aurrera begira baloratuko duguna. Azken bost partidak galdu gabe goaz eta horrek indarra eta motibazio handia ematen digu.

Aste honetan Mulier dugu aurkari, ez dugu lehengo urteko partidaren oroitzapen onik, baina ziur nago orain arte bezala jarraituz gero hiru puntuak etxera ekarriko ditugula!

Aupa Tolosa trakatra!

Europako Txapelketa dute helburu aurten ere

Unai Saralegi eta Unai Regillaga judokek zazpigarren postua lortu dute Internet bidez egin den Europako Kopako proban

Imanol Garcia Landa

Unai Saralegi tolosarrak eta Unai Regillaga amezketarrak orain gutxi judoko *nage no kata* modalitatean Europako Kopako proban zazpigarren postua lortu dute. Judo Club Tolosako kideen asmoa puntuak pilatzea da, uztailean egitea aurreikusita dagoen Europako Txapelketan parte hartzeko. Iaz bezala, aurten ere hori da beraien helburu nagusia. Aurreko urtean ez zen txapelketa hori egin, eta aurten ikusi egin beharko da zer gertatzen den.

Orain egin berri duten Europako Kopa iaz Italian jokatzekoa zen, baina konfinamendua iritsi zen, eta bertan behera geratu zen. Aurten egin ahal izan dute, baina modu bitxian, Internet bidez egin baitute. Bikote parte hartzaile bakoitzak astebeteko epea zuen bideoa grabatu eta antolatzaileei bidaltzeko. Probaren egunean epaileek bideo guztiak jarraian ikusi eta puntuak eman zituzten. «Ni etxean nengoen ikusten, Youtube bitartez eman zutelako, eta oso urduri nengoen, momentuan parte hartzen ari banintz bezala», esan du Saralegik. Regillagak urduritasun bikoitza izan zuen: «Goiz guztia hor pasa genuen begira, bakoitza bere etxetik, baina gure modalitate azkenekoa zenez, eta nik gerriko beltzaren 2. Dan maila ateratzeko azterketa nuenez, ezin izan nuen unean bertan ikusi gure parte hartzea».

Sailkapenean erdialdean geratu ziren, eta helburua antzeko zerbait lortzea zela dio Saralegik: «Lehenengoetatik ez ginen oso urrun izan. Bikote moduan lehenengo aldia zen Europa mailan txapelketa bat egiten genuena, eta behintzat zer edo zer ondo egiten dugula erakutsi dugu. Orain lan gehiago egitera, besterik ez da geratzen». Aurtengoa hirugarren denboraldia dute bikote moduan lehiatzen. Lehenengoan ondo aritu ziren, baina gutxigatik ez zuten lortu Europako Txapelketara sailkatzea, eta pasa den urtean sailkapen hori lortu bazuten ere, azkenean ez zen egin. «Europa mailan lehia-



Espainiako Txapelketan, Saralegi eta Regillaga beren saioa egiten. ATARIA



Espainiako Txapelketako podiumean, eskuinean, Saralegi eta Regillaga. ATARIA

tzen baduzu, Espainia mailan baino jende hobea dago, eta zure maila hobetzen duzu», zehaztu du Saralegik.

ESPAINIAKOAN HIRUGARREN

Iazko Espainiako Txapelketa azaroan egin zuten eta orduan hirugarren postua lortu zuten Saralegik eta Regillagak. «Madrilgo hotel batean egin genuen», esan du Regillagak. «Burbuila batean egon ginen txapelketa bukatu arte. Podiuma egitea lortu genuen, eta puntuak lortu genituen Europako Txapelketan parte hartzeko, baina tamalez gero ez zen egin». Ez dakitena da lortutako puntu horiek baliokote duten aurtengo sailkapenarako.

Espainiako Txapelketa horretan Judo Klub Tolosa taldeko beste judoka batzuek ere parte hartu zuten. Joseba Regillaga amezketarrak eta Joseba Etxarri

tolosarrak bigarren egin zuten junior mailan, eta maila berean seigarren postua lortu zuten Zurriñe Tardio txaramarrak eta Jone Gurrutxaga tolosarrak.

Aurten Espainiako Txapelketa ekainean egingo dela aurreikusi dute, baina hori ere zalantzan egon daiteke. Espainiako Kopako proba guztiak egutegitik desagertu egin dira, beraz, ez dakite hurrengo txapelketa edo proba noiz izango duten.

Bitartean, Saralegik eta Regillagak entrenatzen jarraitzen dute. Hori bai, ez dute askotan entrenatu ahal izaten, baina horrela moldatzen direla diote. «Maila batera iritsi gara, non pare bat egun entrenatuz berriro berreskuratzen dugun», esan du Saralegik. «Oso garrantzitsua da bien artean ondo ulertzea, eta dagoeneko hirugarren denboraldia dugunez elkarrekin, hori nabaritzen da».

Eskualdetik igaroko da gaur Itzulia txirrindulari lasterketa

Erredakzioa

Tropeleko txirrindulari onenetsuenak parte hartzen ari dira Itzulia lasterketan, eta gaur eskualdetik igaroko dira, Gasteizen hasi eta Hondarribian bukatuko den etapan.

Ikaztegiatik sartuko dira txirrindulariak Tolosaldera, 14:45ak aldera, batez besteko azkarrenaren arabera. Ondoren, Alegiatik pasa ostean, Altzo Azpitik joango dira, Altzo Muinotik pasa gabe, Tolosa aldera joateko. Handik Anoetara joko dute, ondoren Alkizara igotzeko. Asteasu eta Zizurkil arteko errepidera jaitsi eta ondoren Zizurkil eta Aduñatik pasako dira, Andoain alde-rra jarraitzeko.

Eskualdeko ibilbidetik puntu nabarmenena Alkizako mendatea da. Hirugarren maila eman dio antolakuntzak, eta baliteke ihesaldiren bat martxan izatea bertan. Eskualdera sartu aurretik, gainera, Deskargako mendatea pasako dute txirrindulariek, eta hor aukera on bat izan daiteke ihesaldia osatzeko.

Caja Rural-RGA taldeko Jon Irisarri leaburuarra parte hartzen ari da Itzulian, eta herenegungo etapan bere protagonismoa izan zuen, ihesaldi nagusian sartu ziren zazpi txirrindularietako bat izan baitzen. Aurreko astean TOLOSALDEKO ATARIA-k Irisarriekin hitz egiteko aukera izan zuen, eta gaurko etapan eskualdetik pasatzerakoan ihes eginda joatea «polita» izango litzatekeela esan zuen. Ikusi beharko da, beraz, leaburuarrak aukerak dituen beste ihesaldi batean sartu eta eskualdeko zaleen animoak jasotzeko.

BILLABONA FKE
Arratzain futbol zelaia

Publikorik ez da onartzen partiduetan

OHOREZKO JUBENIL MAILA
Larunbata 10, 11:30ean
BILLABONA F.K.E. - ORDIZIA K.E.

1. JUBENIL MAILA
Larunbata 10, 15:30ean
BILLABONA F.K.E. - USURBIL F.T.

1. ERREGIONAL MAILA
Larunbata 10, 17:45ean
BILLABONA F.K.E. - ANTIGUA LUBERRI K.E.

Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO APIRILAK 8
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022, villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022, anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118, ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034, alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



GAZTEEI ZUZENDUTAKO EKITALDIAK

Bereziki haur eta gazteei zuzendutako egitarauko bigarren emanaldia izango da gaur, Ibarra-ko Belabieta kiroldegian. Eureka! eskainiko dute, antzerkia, magia eta ilusionismoa uztartzen dituen ikuskizuna, hain zuzen. 17:00etan izango da eta sei eta hamabi urte bitartekoentzat da. Emanaldira joateko aurrez hartu behar da gonbidapena kultur etxean. Pazko astera-ko antolatutako lehen emanaldia Futbolariak eta Printzesak izan zen (irudian). IBARRA KULTURA

OSTEGUNA 08

AGENDA

Deialdiak

Asteasu. Asteasu Jolasean DBH2, DBH4 eta familientzat zuzendurik, 10:00etatik 13:00etara eta ginkana. 15:00etan.

Tolosa. Tye Die kamisetak egiten ariko dira Gazte Topagunean, 16:00etan.

Ibarra. Eureka! ikuskizuna Belabieta kiroldegian, 17:00etan.

Tolosa. Solo las bestias zine foru-maren barruan, Leidorren, 18:45ean.

Tolosa. Tolofolk: Zamorako Luis Antonio Pedrazaren kontzertua, Plaza Berrian, 19:00etan.

Erakusketak

Tolosa. Miren Gonzalez Goikoetxearen SOS Sahara 3 tabernan.

Tolosa. Itzalpeko emakume euskaldunak Aranburu jauregian.

Tolosa. 1970-2020 Burgosko Prozesua erakusketa, Aranburun.

Tolosa. Gizonak, emakumeak eta txotxongiloak, Topic-en.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

11:00. Elkarrizketa (Gaizka Insunsa)

11:30. Gaurkoan Tolosalde

17:30. Gaurkoan Tolosalde

21:30. Gaurkoan Tolosalde

22:00. Pintxo Pote (Amaia Elizaran)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina: eguraldia, albisteak, kolaboratzaileak...

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6-1 behe. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ederrarekin jarraituko dugu. Goizean zeru garbiago agertuko da eta, nahiz eta, tarteka hodeiren bat edo beste ikusi, eguraldi ederra izango da. Arratsaldean erdi eta goimailako hodei gehiago agertuko da, baina ez dute bestelako ondoriorik ekarriko. Haizeak hegotik, tarteka harro joko du eta tenperatura nabarmen igoko da, balio altuenak 21-22 graduan errendituz.

Bihar. Giroa ezegonkortu egingo da zertxobait. Goizean erdi eta goimailako hodei batzuk agertuko badira ere, giroa lasaia eta argia izango da. Arratsaldean ordea, hodei-geruza trinkotu egingo da eta hegoaldeko euri zaparradaren bat sartuko da, uneren batean ekaitz kutsukoak izatea baztertu gabe. Haizeak hegotik tarteka harro joko du eta tenperatura-aren balio altuenek behera egingo dute, 20-21 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak...

www.ataria.eus · 107.6 fm

saldu, erosi, trukatu, oparitu
... euskaraz!

iragarkilaburrak.eus

